



BERGARAKO UDALEAN OBRA TXIKIEN UDAL-BAIMENA LORTZEKO PROZEDURA LABURTUA ETA AZKARRA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2014/11/24an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015/01/28an

BERGARAKO UDALEAN OBRA TXIKIEN UDAL-BAIMENA LORTZEKO PROZEDURA LABURTUA ETA AZKARRA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Sarrera.

Udalaren asmoa da Administrazioiko prozesuak erraztu, izapide burokratikoak kendu eta izapidetzea sinplifikatzea, beti ere indarrean dagoen legedia betetzeko bermearekin.

Udalari bidezkoa iruditu zaio obra txikietarako lizentzien eskaera eta izapidetzea ahalik eta modu errazenean arautzea.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen —Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoan— 1. artikuluan eta udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Ordenantzari jasotzen dira udal-lizentzia eskatzera derrigorputa dauden obrak.

Gauzak horrela, jarraian zehazten diren artikuluetan jasotzen dira obra txikien inguruko definizioa eta izapideak.

1.- Definizioa.

Obra txikien deitura izango dute etxebizitzetan egiten diren eta proiektu teknikoa behar ez duten jarraian zehazten diren etxe barruko obra xumeak:

- Sukaldea berriztu.
- Komuna berriztu.
- Zorua aldatu.
- Barruko arotzeria aldatu.
- Kalefakzioa ezarri edo aldatu.
- Argiteriako instalazioa berriztu.

Bestalde, ez dira obra txikiak izango leihoen aldaketak, elementu amankomunetan (fatxada, atari, eskailera, ...) egiten diren obrak eta eraikinaren egitura ukitzen dutenak. Modu berean, artikuluko honetan “obra txiki” moduan zehazten ez direnak “obra handi” moduan izapidetuko dira.

2.- Izapidea.

Eskatzaileak Udalak prestatutako eskaera-orria bete beharko du eta Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko du eskaera, gremio guztien aurrekontuekin batera. Ondoren, Udaleko Kontuhartzailertzan ordaindu beharko du Ordenantzaren arabera dagozkion tasa eta zerga, eskaera formalki egiten duenetik kontatzen hasita gehienez 10 eguneko epean.

Obra baimena emanda duela ulertuko da eskaera-orrian zehazten diren baldintzekin, eskatzaileak Udaleko tasa eta zerga ordaindu eta, gehienez ere bost laneguneko epean Udalak kontrakorik adierazten ez badu.

Baina udal-tasa eta -zerga ordainduko ez baditu, bere eskaera artxibatu egingo da, atzera egin duela ulertuta.

3.- Eskaera orria.

Eskatzaileak Udalak prestatutako eskaera-orrian aurkeztu beharko du obra txikia egiteko baimen-eskaera.

Eskatzaileak eskaera-orrian zehaztutako datu guztiak azaldu beharko ditu bere eskaeran.

4.- Beste xedapenak.

a.- Udaleko teknikariek sarrera librea izango dute obretara, hauek egiten ari diren bitartean.

b.- Lizentzia eskatzea eta lortzea, egun indarrean den legeriaren arabera derrigor lortu behar diren gainerako baimenen kalterik gabe ulertuko da.

c.- Alkateak ahalmena izango du ordenantza hau egoki interpretatu eta aplikatzerakoan behar beste agindu edo jarraibide emateko.